

LARRATZEAN SUA! 1.

L A R A T Z E A N S U A ! . . .

(Iru ekitalditan)

Garrantzieneko jardun-lagunak

agertu ala:

- (1) (2) DIREKTORE JAUNA
- (1) (3) PILI, nagusiaren alaba gaztea.
- (1) (3) PATRI, onen lagun gaztea.
- (1) KARLOS (KARLA), PILI'REN ANAI GAZTEA
- (1) (2) BURUNTZA JAUNA, fabrikako kontsejerua.
- (1) (2) URDABURU JAUNA, " "
- (1) (2) LEIKOETXE JAUNA, fabrikako nagusia.
- (2) (3) MAÑUEL, fabrikako langillea
- (2) LEIKOETXE'REN ANDREA
- (2) URDABURU'REN "
- (2) BURUNTZA'REN "
- (§) KATALIN, langille Mañuel'en emaztea
- (3) TOMAX, mutikoa
- (3) JEXUX,
- (3) ANABAUTISTA, auzoko emakumea.
- (3) MARITXU, neskatx gazte liraiña.

Lenengo ofiziniasta, Bigarren ofiziniasta, Kontramaixua eta langille bi. (Bost jardun-laguntzaille oiek lenengo ta bigarren ekitaldian jardun motxak.) (Zenbakiak (1) (2) (3) ze ekitalditan lan egiten duten adierazten du)

-&-

Lenengo ta bigarren ekitaldia: Fabrikako direktorearen despatxuan.
Iru garren ekitaldia: Langille Mañuel'en etxeko sukaldean.

-&-&-&-

LENENGO EKITALDIA

Fabrikako landola egoki batean direktoretzako despatxua
(Direktore jaun gaztea lan-maian ari da datoen batzuk orri batzuetan artzen. Tinbrez ots egiten du ta ofiziniasta edadeko bat agertzen da beste despatxuetarako atetik)

- DIREKTOREA.- Balanze-agiri au lenbaitlen, mesedez, jartzazu makinaz. (Orriak)
- OFIZINISTA.- Boste lan batkin ari nintzan. Presa ba' du onek, egiten ari nitzana na utzi ogin bearko dot. Bostela, lan au Juan Joxe'ri emango diot.
- DIREKTOREA.- Ez; au ogingazazu zuk. Olako lanak egiten oitua zaude ta lenago bukatuko dezu. Esku-artean dezun beste lan roi, presakoa ba'da, ogin dezala Juan Joxe'k. Baiña au, zuk ogitea nai dot.
- OFIZINISTA.- Ongi da, jauna.
- DIREKTOREA.- Bai, ta lenbaitlen: alik eta azkarren.
- OFIZINISTA.- Alogiñak egingo ditut. (Barrura abiatzen da)
- DIREKTOREA.- Zaude, Joxe Mañuel. Juan Joxe'ren beste lan ori zer da? presakoan bat?
- OFIZINISTA.- Ez ta ia bukatu du. Bosterik?... (Eta orantzunaren zai gelditzenda ofizinotarako ate inguruan)

II... PILI (apain dator) eta DIREKTORE JAUNA

- PILI.- (Sarrerako atetik, irripartsu) Egun on, direktore jauna. (Ofiziniastarekin dagola ikusiaz seriyo geldutzen da)
- DIREKTOREA.- (Irriparroz ere) Egun on, Pili. (Ofiziniastari) Bazoazke... (Joan)
- PILI.- Ala're!; joan bear zuana ni nintzala uste nuon. (Arritua egiñaz)
- DIREKTOREA.- (Losintxaz) Eztot orrenbestorañoko agintaritzarik nik! Bestela...
- PILI.- Bestela zer?... (Seriyo antzean) Esazu lanpetua zaudela ta boreala juango naiz.

- DIREKTOREA.- Oraindano ala egon naiz: lanpetua, zuk ori ez uste arren. Baiña orain eztaukat alako presako lanik. Eta nor banintz, nerekin gelditzeko aginduko nizuke. Ori litzake nere pozik aundiena, Pili. Eta ba dakizu!
- PILI.- (Seriyo agertu eziñez) Tira, tira; etzaitez asi losintxetan. Eta ..., galdegin zertara natorren.
- DIREKTOREA.- Nerekin egotera: ez det dudarik.
- PILI.- Ori uste ba dezu, gaizki pentsatu dezu. Orra ba, aitarekin egotera nator.
- DIREKTOREA.- Ikusia dago: nik ez tet zurekin inoiz asmatzen. Aitarekin egotera zatozela uste dedanean, nerekin egoteko aitzakiren batekin agertzen zera beti. Eta gaur...
- PILI.- Eta gaur..., esan dizut: aitarekin itzegin nai det.
- DIREKTOREA.- Eztezu bada bere despatxuan, ezta fabrikari ere.
- PILI.- Nun da bada?
- DIREKTOREA.- Abogadua rengana juana da. Etorri bitartean zaude: jarri zaitez.
- PILI.- (Seriyo) Agindua al-da?
- DIREKTOREA.- Nik ezer gutxi agintzen det zurekin: mesedea da.
- PILI.- Orrela ba-da..., aita etorri bitartez..., jarriko naiz.
- DIREKTOREA.- Eta..., zer dakartzu?
- PILI.- (Seriyo agertu niarik) Ez al-derizkiozu ori geitxo jakin naia da-la? Esan dizut: aitarekin itzegin nai det.
- DIREKTOREA.- (Seriyo antzean ere) Nik ere esan dizut: Aita eztago emen. Eta..., nerekin itzegin bearrik ez padezu, zaude ba aitaren zain. (Maigañeko errebista bat emanaz) Torizu, aspertu etzaitez.
- PILI.- Ekatzu, bai. (Ematen dion errebista artuaz) Millesker.
- DIREKTOREA.- Ezta ezer.
(Txutik gagon direktoreak Pili errebista irakurtzen asten dala ikusiaz, bere lan-maira joaten da ta zarbait lan atzen du.)
(OFIZINISTA GAZTE BATEK (atean ots) eta LENGOK.
- DIREKTOREA.- Aurrera!
- OFIZINISTA.- (Karta batzuk emanaz) Joxe Manuel jaunak, firmatzeko mesedez.
- DIREKTOREA.- (Pixkat begiratu ondoren firmatzen ditu.)
- OFIZINISTA.- (Emanaz) Beste oyek nik egin ditut.
- DIREKTOREA.- (Irakurri ondoren firmatzen ditu) Ongi daude.
(Firmatutako kartak artzen ditu ofizinizistak eta ofizinetarako atetik joaten da)

IV

DIREKTORE JAUNA eta PILI

(Ixil unea)

- PILI.- Aizu, Direktore jauna, jez altzendum errebista au baiño aspergarriagorik?
- DIREKTOREA.- Aspergarria?... Or dator montatu degun kalandra-makina berria.
- PILI.- Etzaidazu aitatu neri kalandra berririk.
- DIREKTOREA.- Zer ba?
- PILI.- Kalandraren aitzikiakin ederki aspertua naukazu aspaldian.
- DIREKTOREA.- Ara beraz!... Eztezu esan ba errebistak aspertu zaitula?
- PILI.- (Errebista maigañean utziaz) Errebistak eta zuk!... Zer izan dezu aste osoan gurekin zinera ez joateko?
- DIREKTOREA.- Kalandra, emakume!
- PILI.- Utzi nazazu pakean kalamdrarekin ta erantzun zaidazu: zer izan dezu?
- DIREKTOREA.- Orra, ba; zure galderari erantzutea nai ba dezu, berriz ere kalandra aitatu bearrean nago. Ba dakizu montatu bearra zegola..., orrek euki nau lanpetua aste osoan. Naita ere, ezin joan nitekean zuekin zinera.

- PILI.- Larunbata da, ta gaur ere ez?
- DIREKTOREA.- Gaur, bai; joan nitekeala uste det.
- PILI.- Eztakizu ziur beraz? (Zaputz antzean, seriyo jartzenda)
- DIREKTOREA.- Ortaz itzegin nai nun zurekin. Etzaitz jarri seriyo; alaitu zaitz, Pili! Ni fabrikaren mende nago.., ta zure mente, jakiña. (Urbiltzen zayo)
- PILI.- Fabrikaren mende baliteke, baiña nere mende, ez! Eztirudi beintzat
- DIREKTOREA.- Fabrika ez al-da zuena? Beraz, bi bider nago zure mende. Batetik, fabrikari begiratu bearra dagolako; bastetik, zuri geiago begiratu nairik omen naukazuñako. (Irriparrez begiratzen dio)
- PILI.- Zaude ixillik, Migel! (Irriparrez) Zurekin, naita ere, ezin asarretu niteke.
- (Biak par egiten dute.)
- DIREKTOREA.- Apain zatoz goizetik gaur. Beti zaude apain, baiña gaur zoragarri!
- PILI.- (Txutik, soingañoagatik) Gustatzen altzaizu?
- DIREKTOREA.-! Erruz! Kolore... ali onek, alako dirdira berdexka damaie zure begi-urdin politai. Lilluragarri zaude!
- PILI.- Eta zu oso adeitsu ta limurki! Ez nauzu engañatzen ordea.
- DIREKTOREA.- Bisiten batera altzuaz?
- PILI.- Bai, nere lagun Patrifeekin. Goien gelditu da nere zain, amarekin. Eskera joateko asmoak ditugu.
- DIREKTOREA.- Eskera joateko apañegi! Eta gaur, gañera, esketarako otz egiten du.
- PILI.- Zer nai dezu! Eguarriak uste baiño len gañean ditugu. Eta, badakizu: beartasun aundia dago erriko famili batzuen artean. Esken ibilli bearra degu Sekretaritoko neskatxak. Eta guk, jakiña, erriko famili aberatsenak bixitatuko ditugu. Ortara nentorren aitarengana ero.
- DIREKTOREA.- Ez al-derizkiozu toki txarrera zatozela? Fabrikan baino obe dezu e etxean eskatzea.
- PILI.- Etxean ere eskatu diot. Emen, fabrikari eskatu nai diot aitaren bitartez.
- DIREKTOREA.- Emen umore txarrean arkituko dezu. Batez ere gaur.
- PILI.- Zergatik gaur? Zerbait al-du?
- DIREKTOREA.- Kontseju txikiko billera.
- PILI.- Garaiz nator beraz? Orrela, atzerapenetan ibilli gabe, artu dezazute arabakia gaur bertan.
- DIREKTOREA.- Ez dot uste ore ain erreza danik. Aspaldian emen daukagu langilleal firmatutako orri bat. Bizi-modua oso gora dijoala ta jornalak iyotzeko eskabidea egiten dute. Gaurko billerara eramateko asmoak ditut. Eta zu ere eskean ba'zatoz orain, ba'liteke aien kaltean izetea.
- PILI.- Ezta nere eskabidea, Karitas'ena baiño.
- DIREKTOREA.- Zurea edo bestearena, eskabidea beintzat.
- PILI.- (Erakutsiaz) Ona karta. Neronek eman nai nion aitari. Baiña, obeto ba'derizkiozu, gaurko billerara zerorrek eramatea berdin da. Bestela, ondoen uste dezunean. (Karta luzetzen dio)
- DIREKTOREA.- (Karta artuaz) Utzi zaidazu, bai.

V

PATRI eta LENGOK

- PATRI.- (Sarrerako atetik agertuaz.) Banekien... Ez naiz egon goien alper-txarrean zai! Pentsatzen nuen...
- PILI.- Barkatu, Patri; aspertu zaitut zai.
- PATRI.- Zure amarekin egon naiz. Bixitak egitera juan bear badegu baiña,

Billa natorkizu.

- DIREKTOREA.- Zu ere Karitas'en izenean eskera al-zatoz, Patrixi?
- PATRI.- (Seriyo) Asi altzera orain ere? Ni ez naiz Patrixi. Ori izen itsusia da. Ni Patri edo Patricia naiz. Badakizu!
- DIREKTOREA.- Etzaitetz asarretu. Gaurdandik neretzat Paritxo izango zera. Zu bezalako neskatz polit batentzat, ez Patri ta ez Patricia, etzaizkit gustatzen neri.
- PARTI.- Neri bai, ta neri gustatu bear zait eta ez zuri. Zuk naikoa dezu Pili'kin.
- PILI.- (Patri'ri) Eta zuk Julito'kin.
- DIREKTOREA.- Ori, ori ...
- PATRI.- (Seriyo) Naikoa degu!
- DIREKTOREA.- Zu ere, asteosoan agertu ez naizelako, asarre ote zaude nerekin?
- PATRI.- Ni zurekin?...Ez orixe! Pili ya zure arteko asarretan ez det nik artu-emanik.
- PILI.- (Patri'ri) Nork esan dizu asarre geundenik?
- PATRI.- Zeok!... Eta nagon ixillik! (Zapuztuaz ixiltzen da)
- DIREKTOREA.- Tira, tira; zapuzti jartzeko politegia zara zu ere, Patri'ri!
- PILI.- (Irriparrez) Etzaiozu egin kasorik, Patri. Txantxetako gogoa dauka gaur Migel'ek.
- DIREKTOREA.- (Patri'ri) Zu ere eskea al-zatozen galdegin dizut eta eztidazu erantzun.
- PATRI.- Ortarako asmoan atera naiz etxetik. Zuk asko eman al-dezu?
- DIREKTOREA.- Neri ez dit inork ezer eskatu.
- PATRI.- Pili'rik eskatu ez padizu ba, neronek eskatzen dizut Karitas'en izenean. Orain ikusiko degu txantxetako gizona zeran ala benazkoa. (Eskua luzatuz) Ea ba!
- DIREKTOREA.- Ezkabidea zorrotz egitea da ori. Orrela ezin neurtuko dezu inoren gizatasuna.
- PATRI.- Baina, bai, inoren ontasuna. Tira, ikusi dezagun zure borondate ori zenbatarañakoa dan.
- DIREKTOREA.- Diruz?... Eztago gaizki!
- PATRI.- Ematen dezunaz, bai.
- PILI.- Eta zuk asko dezakezu. Ez aztu!
- DIREKTOREA.- Ez al da kizute ematen danari baiño geiago beiratu bear zaiola nola ematen denari?
- PILI.- Guk ezin neurtu dezakegu ez zure, ez inoren borondaterik.
- PATRI.- Eskubiak ematen duna ez du jakinbear ezkerreko eskuak ere.
- DIREKTOREA.- Biokin nork burutu! "Ematen" esan bearrean nago.
- PILI.- Esan bearrean ez; "ematen" egin bearrean.
- DIREKTOREA.- Au naitanayez kentzea da!
- PATRI.- Guk eztiogu gogorrean inori kentzen. Bakoitzak ikusi dezala zer eman bear duan.
- PILI.- Eta etzaitetz egon luzapenetan: etzera eman gabe geldituko!
- DIREKTOREA.- Zuekin egon ez naizela egunak dira. Luzapenetan ba'nago, zuek begien aurretik bat-batean ez uztegitik da.
- PATRI.- Begira ziozu polsikuari!
- DIREKTOREA.- Zu ere eskerako apañegi zatoz, Patri!
- PATRI.- Ori da nere izena, bai; baiña orain zure borondatea jakin nai degu.
- DIREKTOREA.- Baiña sobrepean. (Sobre bat artzen du ta billete bat barruan sartu ondoren Patri'ri ematen dio) Torizu!
- PATRI.- (Sobre artuaz) Millesker!
- PILI.- Millesker!...beartsuen izenean. Baiña zu zera lonengoa ta "estraña" ona izango alda!
- PATRI.- Etzazu ori esan, Pili! Ez dezala uste jakin nairik gelditzen geala Ez, ez!..
- DIREKTOREA.- Ori gaizki pentsatzea litzako.
- PILI.- Ni naiz tesorerera. Ekatzu sobrea, Patri. Nik gordeko det. (Emanen)

DIREKTOREA.- Ori gaizki pentsatzea litzake.

PILI.- Ni naiz tesorerera. Ekatzu sobrea, Patri. Nik gordeko det. (Ematen dio) Baiña sobrea itxi gabe ez. (Ixten ari dala barrukoari begiratzeko dio disimuluz.)

DIREKTOREA.- Zertan ari zera?

PILI.- Estalkia itxitzeko, Migel!

DIREKTOREA.- Eztakit'pa begi-zearkaden bat ez ote diozun bota...

PILI.- Nai gabe, ta berdeetakoa da.

DIREKTOREA.- Gaiztoa zera, Pili! Azkar igarri diozu.

PILI.- Etxazula uste: ez nago ziur zembat diran.

DIREKTOREA.- Zenbat diran?... Batekin ez al-da naikoa?

PILI.- Naikoa, naikoa... Ezta gutxi... Baiña bi gera eskabidea egiten degunak beartsuen izenean. Ez nazu ni utziko ezer gabe noski? (Liturki) Tira, Migel, beste bat gutxienez...

DIREKTOREA.- Gutxienez?... Nik ez daukat diru-makinarik!

PILI.- Nik eskatzen dizut, Migel!

DIREKTOREA.- Baiña ez da au kristau eskabidea... Ez da au ezkerreko eskuak ez jakitea.

PILI.- Baiña bai zuri kentzoko artu dedan eskabidea!

PATRI.- (Par egiten du algara gozoan)

DIREKTOREA.- (Kartera atez) Orrela kentzen dakin andregai batekin ez naiz ni ezkonduko.

PILI.- (Samurki) Baiña nerekin bai, ezta? Eztidazu lehen esan zoragarri naizela?

DIREKTOREA.- Zoragarria zerala, ez; zoragarri zaudela soingañeko polit onekin.

PILI.- Ekatzu, ba, oetako billete berde bat.

DIREKTOREA.- (Emanaz) Torizu, torizu...

PILI.- (Artuaz) Muxu bat irabazi dezu. (Musu ematen dio)

PATRI.- (Pili'ri) Nik ere eman bear ote diot?

PILI.- Zure ordeaz emango diot nik, orra! (Esan bezela ematen dio musu)

PATRI.- Nik zer egiten det emen? Banca, banca!...(Joateko itxura)

DIREKTOREA.- Zaude, Patri! Zer zinetara joango gera artsaldean?

PILI.- Gaurkoa al-da periodikua ori?

DIREKTOREA.- Bai. (Maigañetik artzen du periodikua eta ontan ots egiten du OFIZINISTA gazteak ofizinetarako atean)

VI

DIREKTOREA.- Aurrera!

OFIZINISTA.- Kontramaixuak zurekin itzegin nai luke, Direktore jauna.

DIREKTOREA.- Or al-dago?

OFIZINISTA.- Bai, jauna.

DIREKTOREA.- Bereala: dagola... Baiña ez; oraintxen joango naiz neroni. (Ofizininista joaten da) Bitartean zeok begira zazute zer zinetara joan. (Periodikua ematen die ta ofizinetarako atetik joaten da.)

VII

PILI eta PATRI

PATRI.- (Periodikuan begira dagon Pilifi) Ezer berririk jartzen al-dute?

PILI.- Geienak ikusiak. Baiña ona: "Gizonaren bizitza" Leidor zinean. Au

PATRI.- "Gizonaren bizitza", izena gustatzen zait. Eta zuri?

PILI.- Eztakit polita izango dan, baiño titulua arnagarria da: batez ere emakumeontzako.

PATRI.- Bai, dudarik gabe, ori ikustera joango gera: "Gizonaren bizitza" Politia izango da, ezto dudik!...

VIII

KARLOS.- (Pili'ren anaia, gaztea, estudiantea; Deportista "moderno" oetakoa)

- Kalparra aurrera aterea, kokozpean bizarra uzten asia. Eskiatzera joatekotan.)
- KARLOS.- (Sarrerako atetik agertu orduko) Zer egiten dezute emen goruntz begira?
- PILI.- (Patri'ri) Nere anaia beti adeitsu. Onak eztaqui agurtzen, Patri.
- KARLOS.- Zuek biok emen goruntz begira ikusteak arritu natxion... Orregatik galdetu dizutet zer egiten dezuten.
- PILI.- (Patri'ri) Au betikoa: galdetzen besterik ez daki. Iñor agurtzen ordea..., oraindik ez du ikazi.
- PATRI.- (Irripar egiten du)
- KARLOS.- (Patri'ri) Nere arrebaren astez, mutil txaketsa omen naiz gizarterako, Patri.
- PATRI.- (Erantzun ordez, irripar gozoa)
- PILI.- (Anaiari) Gizarterako etzekiat, baiña emakume arterako, bai.
- PATRI.- (Berriz ere irripar)
- KARLOS.- (Patri'ri) Irripar egiten besterik ez al-dakizu?
- PATRI.- (Irriparrari utzi gabe) Negar egitea nai al-zenduke? Poz ori eman-go dizut, Karla, iñoren malkoen bearrean ba'zaude.
- KARLOS.- (Irriparrez) Ez, ez; negarrik ez! Irriparra naiago det.
- PATRI.- Ba'dakit norenak zaizkizun gogoko. Maritxunak, esta?
- KARLOS.- Edo zureak..., irriparra gozoa baitezut!
- PATRI.- Ni ez naiz zure kidakoa ta zuretzat minkatza lirake. Maritxunak baiña...
- PILI.- (Destañez) Maritxu!...
- PATRI.- (Karlos'i) Oso polita da: begi ona dozu!
- KARLOS.- Bai orixe!... Ederrean lirain!... Ez deritzaizu?
- PILI.- Ago ixillik! Eta esaiguk zertara etorri aizen.
- KARLOS.- Aitarengana.
- PILI.- Gaur ere kendu naiko diok norabaiterako.
- KARLOS.- Eztiñat diru bearrik eskiatzera Aralar mendira joateko. Ori aitari esatera etorri naun. Amak eman zidan baimena.
- PILI.- Baimena ta nai dekan guztia, errez ateratzen dek ik amarengandik. Bart arratsean etorri itzan gaur zortzi joanda Kandantxutik edo etzekiat mundik... Eta, orain, Aralar mendira juatekotan... Etzegok gaizki!
- KARLOS.- Tira, esaidan: zer egiten dezute emen?
- PILI.- Aitaren zai gaude gu ere.
- KARLOS.- Ez al-da emen?... Nik etzaukanat zai egoterik... Esaion ik aitari: Aralar mendira joan naizela. (Ateruntz egiten du)
- PILI.- Oa beti bezin lasai, bai
- KARLOS.- (Geldituaz) Ze esan naiddidan orrekin?
- PILI.- Bagoakela eskiatzera... Besterik ez.
- PATRI.- (Karlos'i) Elurrik ba'alda Aralar'en?
- KARLOS.- Ori esan digute. Bart mara-mara egin omen du. Etorri nai al-dezu gurekin?
- PATRI.- Eskiatzera mendira igotzea baiño garrantziagoko eginbearrak ditugu emen.
- KARLOS.- Bai, gaur ere izango dezute "bixitak" egiteko aitzaki txoroen bat.
- PATRI.- Beartsuen alde bixitak egitea txorakeria derizkiozu?
- PILI.- Etzaiozu oni ezer esan, Patri. Au ajolakabe bizi da.
- KARLOS.- Zer uste den?... Emeretzi urte dizkiñat... bakaziyotan natxegon... eta al dan ondoen pasa nai dizkiñat eguberritako opor-egunak... LA-istertxo etorriko zaizkigun berriz ere liburuen buruausteak.
- PILI.- Orduan ere..., naiko ajolakabe!
- KARLOS.- Ortaz zer dakin ik?... Ja, ja...(Patri'ri) Karrera koxkor bat bukatu zualako, emen dago arrotutu. Zuk bai..., ondo dakizu, Patri,

- karrera ikastea zer dan... Ba dakit onenetako notak ateratzen dituzula... Nik ez ain inak... baiña aurrera noa, eta ez nere arrebak uste bezin arrenka. (Pili'gatik) Baiña.., zer daki onek?.. Eztakit nugo tesorerara egin dutela musu truk, eta, nor burutu onekin? Emen daukagu mundu zarraren gañean mundu berri bat jasotzen ari ba' litz bezela... Beartsuen batzuei diru merkearekin lagundu.., ori bai! baiño iñoiz baiño beartsu ta arlote geiago gañean,.. ori ere bai!
- PATRI.- Ondo zatoz beraz. Ea zer diru gizenekin laguntzen diezun zuk erriko beartsuai!
- KARLOS.- Nik? .. Ni ez nago irabazian emakume! Ni aitarekin bizi naiz. Eta, gañera, nik beste ideak ditut.
- PILI.- Esan diguk, bai: alik eta ondoen bizitzekoak!
- KARLOS.- Eta iri zer!...
- PATRI.- Ola dago gaur gizapidea. Eztakit nora goazen!
- KARLOS.- Begira, Patri... Au ez al-dezu iñoiz entzun? Gizapidean ez omen da ogia irabazten jakitea bearrekoena, "mokaru" bakoitza geoi gozoagoa egiten jakitea baiño. Eta ni, gaztea naiz, eta ortan nago.
- PATRI.- Ez dago gaizki!.. Eta zuk, irabazpidean jarri baiño lenago, "mokaru" ori goxo egiten jakin nai... Ez da eskola txarra!
- KARLOS.- Gozoa dana nola diteke txarra? Ona da!
- PATRI.- Ez dakit ba ... es-ko-la-o-ri ...
- PILI.- Bai, Patri: etzazu dudik izan!... Onenetakoa da. Ez dago nere anaiari galdetu bearrik. Nik esaten dizut!... Oso nota bikaiñak atertzen ditu es-co-la or-tan... Gurasoen ogia gustora jaten,.. ortan eta mami xamurrena bizitzari artu eta alik eta ondoen bizitzen... , ortan bai, ortan ondo ikasia da nere anai maitea!
- KARLOS.- Eta i, nere arreatxo ez gutxiago maitea!... txepelkeri esanekin neri atsegin zaidan "mokaru" mindu nairik poztutzen aiz, ezten ala? Baiña neri ajola gutxi ire txepel iñakak. Je, je...
- PILI.- Bazekiat, bazekiat...
- PATRI.- Nere ustez, Karla, esanaren "mokaruari" eztiozu artu zuk duan mamia.
- KARLOS.- Bai, Patri, bai: ezurra ta mamia bereizten ongi dakit!
- PATRI.- Eztakit'pa!: ez ote du au esan nai? Degun ogia gogoz, "on digula" esanaz, artu bearra dagola. Jakiña, bizitzak "mokaru" garratz asko ditu, eta aiek gozatu bearra dago. Amorruez artzen denak eztu onik egiten.
- KARLOS.- Neri, geiago eziñak eman oi dit amorrui!
- PATRI.- Ori txarra!.. Aldegunera jarri bearra dago.
- KARLOS.- Eziñean, bearko!
- PATRI.- Guk, geyegi nairik eziñean dagonari ez diogu ba laguntzen.
- KARLOS.- Neri ez, badakit!
- PATRI.- Ez naiz ari txantxetan. Baiña bai alpertxarrean. Au ez dezu xamurtuko.
- KARLOS.- Patrik'k bañin nor xamurtua neri zai egon gabe.
- PATRI.- Igesian zabilta... Zurekin, eta su bezelakoekin, eztago mundu obego bat egiterik. Eta munduan bizi zera ta ez illargian. Eta gure inguruan beartasun aundia dago.
- KARLOS.- Eta gu, ondo eseriak bizi gerala munduan.., esanaren "mokaruari" gozotasuna zurrupatzan ongi dakigula.., lagun urkoarentzat errukirik gabe, e?... Eta ori ez dago ondo!
- PATRI.- Ideetan aldakorra dirudizu, ezta?... Izan ere, kokotzean bizarra uzten asia zera, ta ez dago zer ideetakoa zeran jakiterik.
- KARLOS.- Eta zuek zer zerate?.. Ah! bai: karidadeko neskatxak!...
- PATRI.- Inguruko "mixeriyak" bertan bera utzita jan genezaken ogiori gozotasunik arkituko ez geniokenak!

KARLOS.- Zoazte, zoazte bizipidean ezer gutxi dutenenganana noizikpeingo ogiarekin gose-asarrea ixilduaraztera. Karidade utsezko obra ederretan aberats-nagusien alabak ikusteak, eztio lanaren Ogiari gozatasun aundirik emango. Garratzagoa egingo zaie, nere ustez.

PATRI.- Zertan gabilitza orduan?

PILI.- Etzaiozu jaramon geiegi egin nere anaiari.

KARLOS.- "Nere anai maiteari", arrebatxo maite!

PILI.- "Nere anai maite, bai". (Patri'ri) Au oso "teorikua" degu. Eztakit ze"idea berri" sartu zaizkion oni ere buruan. Bera, bere buruari "aldan ondoen bizi adi" esanaz, ongi bizi da. Onan antzera bizi diranak, oso idea ederrak eta eta "praktikuak" dibuzte buruan, baiña bestentzat.... lanaren ezurra.

KARLOS.- (Patri'ri) Ni ez nago iñoren mende, ta ez daukat iñor nere mende. Eta, orregatik noski, beste ideak ditut.

PILI.- Esan diguk, bai: alik eta ondoen bizitzekoak.

KARLOS.- Ala den... Eztiñat ukatzen... Ikasi dedana egiten diñat nik... Ika-si dedana, eta ikusten dedana... Alduanak alduen ondoen bizi nai din emen. Mundua ola arkitu diñagu, eta ni jolaserako natxegon orain...

PILI.- Jolastu adi, bai; baiña zentzuz.

KARLOS.- Iri entzunaz txorrea naizela pentsatuko din Patri'k.

PATRI.- Zergatik pentsatu bear det txorrea zeranik?.. Txorrea..Txorrea,..(Irri-parrez) Ez, ez!...

KARLOS.- Mundua zer dan ba'dakit; baita mundukoak ere;

Jira ta bira dabil
gure mundu zarra;
bertan guztiok
zorabioz.

PATRI .+ Ez'pedi mundu boroballa
poxpolin dantzariña!
Nork emaneh lioke
zentzuz bira-jira?

KARLOS.- Zertarakoz?
baldin gazteria
badarabil gogoz!..

PATRI.- Kitarra
bizarra
desirazko
kantua...

KARLOS.- Uxa, uxa...
lengo
lozorrua:
lengoa...len
garrasi ernagarritz
alaitu gaitzen!...

PILI.p Txorrea ezik, ez ote aiz eroa? Oa, oa!.. Eta ire jolas-lagunekin alaitu adi!

KARLOS.- Ona gure muxurdin!

PILI.- (Irriparrez) Txorrea, txorrea...

PATRI.- (Irriparrez ere.) Mundua zer dan ba'dakizula? Eztirudi!...

KARLOS.- Eztirudi..., eztirudi... egia!.. Munduari begiratzan ba'diogu..., eztirudi..., eztirudi..., batzuentzat bai, baiña askorentzat ondo dabilenik. Gaztea naiz ni, eta, zer egingo degu? Jolastu.., jolastu!!! Gero gerokoak!! Ez al-derizkiozu, Patri?

PATRI.-Nik uste, mundua zer danari baiño geiago begiratu bear liokela gazte-estudiante batek mundua zer izan bear dunari.

- KARLOS.- Besterik egiten ak-degu? edo zer besterik egin dezakegu?...Bakoi-
tzaren onari begiratu!
- PATRI.- Baiña munduaren intasunari begiratu.
- KARLOS.- Ixpillu ederra mundua! Gazteen begiramonak zer ikaspidetan ar de-
zaken atseden? lengo mundua oraingoa bezin makurra izan zala, eta,
etorkizunekoa, obeagoa izango dan itxaropen gutxi!
- PATRI.- Baiña mundu obeago bat egiten saiatu bearra dago!
- KARLOS.- Ikusiko degu noiz, bizi ba-gera. Baiña orain naiago det, munduko
nazkeetan sartu baño, eskiatzera joan. Ez nago beste ezertarako.
- PILI.- Orain esan dek egia. I ez ago beste ezertarako...
- KARLOS.- Ez beintzat zuen txotakerietarako. Egin zadan par: Ja, ja!...
- PATRI.- Beartsuei laguntzea txorakeria dala uste dezu, beraz?
- KARLOS.- Ez nuke orrenbeste esango. Ze izan bear du txorakeria! Ez, ez...
Baiña zuek -- eta barkatu zuk, Patri-- beti da-degute aitzaki txi-
ki txikien bat zeon buruak bixitetan apain agertzeko. Berriketa
atsegin izan zait, Patri, baiña joan bearra daukat, eta banoa.
- PILI.- Oa, bai, eta emaguk pakea.
- PATRI.- (Irripar egiten du)
- KARLOS.- Geldi zaitzete, ba, pake-santuan! Eta zuk, Patri, egin, egin irri-
par! Bestela galdua zaude. Ja, ja...

(Parrez joaten da.)

IX

PILI ta PATRI

- PILI.- Nere anaia beti txoro!.. Eztago orrekin gauza onik.
- PATRI.- Eztirudi, ba, ain txoroa!
- PILI.- Bazterren batean elurrik ba-da, etxetik aldegitako beti pozik eta
gertu.
- PATRI.- Ni berriz, elurra ari duanean edo gaur bezalako eguraldi otzarekin
etxeke giro epelean pozago!
- PILI.- Eta gu, bixitetan, apain agertzeagatik!...
- PATRI.- Eta gu.., txorakerian!..
- PILI.- Ala da.., ala da...

X

DIREKTORE JAUNA eta LENGOK

- DIREKTOREA.- (Lengo atetik) Zuekin naiz! Aspertuko ziñaten?
- PILI.- Aspertu ez,.. Baiña luzetsita bai.
- DIREKTOREA.- Emen ez dago nai degunean etortzerik... Eta, pentsatuko zenduten?
- PILI.- Guk bai. Orain zuk eta Bikendik dezute itza.
- PATRI.- Julio'ri esan bearrik ez dago, baiña esango diot... Badakit: ez du
ezetzik esango.
- DIREKTOREA.- Nik ere ez. Zuek pentsatu ba'dezute, betiko tokian alkartukogera:
an egongo gera zuzen asko zuzen zai.
- PILI.- Zuzen.., kalandraren aitzakiren batek okertzen ez'pazaitu ezta?
- DIREKTOREA.- (Irripartsu) Kalandra, bai... Etzazula dudarik izan!..Bestela a-
sarretuko naiz.
- PATRI.- (Irriparrez ere.) Asarretu baiño lenago obe degu "bixitak" egite-
ra joan.
- PILI.- Obe degu, bai...
- DIREKTOREA.- Ea ugari biltzen dezuten!
- PILI.- (Irriparrez) Zurea baiño poltsillu egoskorragorik ez dezagula ar-
ki!
- DIREKTOREA.- Zoazte, zoazte berriz eskean asi biño len!...
- (Parrez agurtzen dira ta sarrerako atetik joaten dira Pili ta Pa)
- XI- OFIZINISTA EDADEKOA ofisetarako atean ots.
- DIREKTOREA.- Aurrera!

OFIZINISTA.- (Orriak emanaz) Bukatu det.

DIREKTOREA.- (Artuaz) Konprobatu al-dezu?

OFICINISTA.- Bai; ondo dago.

DIREKTOREA.- Eskarrikasko. (Ofizininista joaten da ta Direktore jauna ekarritako orriai begira gelditzen da.)

XII

DIREKTORE JAUNA eta BURUNTZA JAUNA. (Kontsejerua da. Otz egiten du Onen antz-irudi ta jazkerako, ori kontuan artu. Ze ayurriko gizona dan bere jardunak adierazten du.)

BURUNTZA J.- (Sarrerako atetik eskuak astinduz) Zer da gaurko otz au? (Eskua emanaz) Ondo al-gera?

DIREKTOREA.- (Agurtuaz) Bai, ta egun on, Buruntza jauna.

BURUNTZA J.- Egun on?... Zaude ixillik.... Gaurko otza gogorra da orratik!.. (IBILLIAN) Elurra gañean degu... Otzak eztio uzten...

DIREKTOREA.- Ezta orrenbesterañokoa...

BURUNTZA J.- (geldituaz) Ezetz?... Jakiña.., zu, emen.., epelean giro..(Ibillian) Zoaz kampa!..(Geldituaz) Zer! lenengoa al naiz? Ez al-da etorri Urdaburu jauna?... (Ibillian berriz)

DIREKTOREA.- Ezta oraindik etorri. Baiña onezkero laister izango da. Jarri zaitte.

BURUNTZA J.- Ez. (Zangoak igurtziz) Automobillean zangoak txingurritu zaizkit. Ea oiñak, txutik... (Ibillian) pixkat berotzen ditudan. (Lurra Kolpa - tzen du)

DIREKTOREA.- Bakarrik etorri al-zera?

BURUNTZA J.- (Geldituaz) Ez, gizona!.. Emaztearekin etorri naiz... Eztakit nik nola arraio konpontzen diran... (Ibillian) Zea.., (Geldituaz) nere emaztea ta Urdaburu jaunarena... Guri adarra jotzeko, ba dakite alkar artzen... Telefonoak mesede aundiak egiten ditu; baiña.., baita kalte ere. (Ibillian)

DIREKTOREA.- Zer ba?

BURUNTZA J.- Telefonorik ez palitz ez luteke alkarrekin itzegiteko duten eretzta-sunik. Baiña telefonoz... (Geldituaz) Gaur ere egin digute berea... Donosti'ra joan bearra dubela.., eta, bidez, Leikoetxe jaunaren andrea agurtu nai lutekola... (Ibillian asi ta geldituaz) Or da nere agurtzera igoa... Gero.., Donosti'n bazkalduko degula, eta ez dago beti ezetzik esaterik... Goxoak jarrikp lirake!... Batez ere nere e andrea... nere andre xamurra...

DIREKTOREA.- Baiña zeek ere, emazteen aitzaki orrekin, Donosti'n bazkaldu nai, Nikolasa'n edo Aita Mari'nean.

BURUNTZA J.- Asmatu dezu!.. Jakiña.., jakiña... An bazkaltzeko asmoak ditugu, bai ... Ez al-da Leikoetxe jauna emen?... bere despatxoan?...

DIREKTOREA.- Ez da or, ez. Ba dakizu.., makina berrien baimen-arazoak eta... Abogadua rengana joana da. Aurki etorriko da onezkero.

BURUNTZA J. ¶ Makina berria eragin betean ariko da noski?...

DIREKTOREA.- Bai, ala daukagu. Askotatzen du: lengo zaharrak baiño askotaz atekin geiago emango digu. Aurten ez, baiño datorren urtean igaz baiño "dividendo" ohea banatzeko asmoak ditugu: aurtengoa doblatuko degula uste det.

BURUNTZA J.- Nola, nola!.. Ze esaten didazu?... Aurten, orduan, galduan?

DIREKTOREA.- Nola galduan?

BURUNTZA J.- Ez dezu esan, ba, igaz baiño gutxiago jasoko degula aurten?.. Ori galduan ateratzea da! Dana gora ta irabaziak murritzen... Tokitara goaz!

DIREKTOREA.- Zaude, zaude ixillik!... Zuk, esaten zaizunatik, nai dezuna bakarri jasotzen dezu.

BURUNTZA J. -Nai dedana?... Nai ez dedana, gizona!

- DIREKTOREA.- Etzaitetz aztu makina berriengatik amortizazio-zerrendara asko eram bearra dagola.
- BURUNTZA J.- Bai, bai; baiña aurten, aidanez, poltxikurako gutxiago.
- DIREKTOREA.- Baiña fabrikaren balioa gora!
- BURUNTZA J.- Baiña gu, igaz baiño gutxiago ba' degu, galduan..; eta, galduan ateratzeko...
- DIREKTOREA.- Tira, tira; etzazu negarrik egin, Buruntza jauna!
(Sarrerako ate inguruan purrust-otsak)
- BURUNTZA J.- Emen degu Urdaburu jauna! Orren urratsak urrutitik entzuten dira.
- DIREKTOREA.- (Ateruntz begira) Eztago dudik: bera degu. (Adi) Norekin ari ote da?
- BURUNTZA J.- Bere buruarekin beti bezela. Astuna du, eta orrek ematen dizkio lanak!
- XIII
- LENGOAK eta URDABURU JAUNA.- (Fabrikako kontsejuko ere. Buruntza jauna baiño zartxagoa urtez. Gañerantzean biak berdintsu: eztakigu zein dan setatsuagoa, zitalagoa; ezpaitira geyegiz nabarmentzen)
- URDABURU J.- (Purrusten batzuk egiñaz agertzen da)
- BURUNTZA J.- Zer! purrustan al-zatoz orain ere, Urdaburu jauna?
- URDABURU J.- Zaude ixillik, Buruntza jaun kankaillu! Nik eztet zuk añako purrusti egiten.
- BURUNTZA J.- Purrustak eta agur polita!... (Direktore jaunari) Nori esaten ote dio onek kankaillu?
- DIREKTOREA.- Zuek beti berdin.., alkarri iseka egiten.
- BURUNTZA J.- Alakoak baitira gure 2buru" izenak.
- URDABURU J.- (Buruntza'gatik) Bata.., Buruntza.
- BURUNTZA J.- (Urdaburugatik) Bestea.., Urdaburu.
- DIREKTOREA.- Biok azkarrak!
- BURUNTZA J.- Buru aundiko gizonak!
(Par egiten dute)
- URDABURU J.- (Berekiko) I añako gutxi!
- BURUNTZA J.- (Direktore jaunari) Beti zuka itzegin izan degu, baiña oso lagun onak gera. (Urdaburu jauna beatzarekin siñalatuaz) Au zahertxagoa da, ta urteak errespetatu bearra dago. Neri ala erakutsi zidan amona zanak.
- URDABURU J.- Eta neri aitona zanak. Konforme al-zaude zure urteekin? Ni ere bai nereekin. Urteak ondo eramaten jakin bearra dago, (Beatzari burugañean eragiñez) jaun Buruntza!
- BURUNTZA J.- Zu, ni baiño zahartxagoa zera, eta... (Buruari elduaz) gaztagoa, jaun Urdaburu!
- URDABURU J.- (Berekiko) Esantzak nai dekana! (Buruntza jaunari) Etzaituzte zu ere santu egingo, bestela... lanak izango lituke elizak zure burua koronatzeko.
(Par egiten dute)
- BURUNTZA J.- Bota, bota!...
- URDABURU J.- (Direktore jaunari) Baiña, onem berriketakin, etzaitut agurtu. (Eskua emanaz) Ongi al-gera?
- DIREKTOREA.- Bai; eta zuri, Urdaburu jauna, galdetu bearrik eztago.
- URDABURU J.- Eta,.. aurten zer?... Irabazi onak izango dira, ezta?..Jakín al-geenezake?...
- DIREKTOREA.- Oraindik eztago ori jakiterik. Urtea ez da bukatu. Baiña ala uste degu, gaizki ez beintzat.
- BURUNTZA J.- Eztidazu esan, ba, gutxiago izango degula?
- DIREKTOREA.- Buruntza jauna, etzaitetz asi berriz lengo arloarekin.
- URDABURU J.- Nola, nola!...Gutxiago?..
- DIREKTOREA.- Ez, ez!.. (Buruntza jaunarengatik) Zer daki onek! Onek ere Urdaburu jauna, zuk bezela aurrez jakin naia. Leikoetke jaunakin biltzean itzegingo degu ortaz.

URDABURU J.- Ez al-da or? (Ofizinetarako ateruntz begira)

DIREKTOREA.- Ez; baiña garaiz etorriko da-la esan du. (Maigañeko orrie begira)
 Au burua!... Dato batzuk falta zaizkit. (Orriak artzen ditu eta zutik jarriaz) Zaute,... berealaxe emen naiz. (Ofinētarako atetik joatenda)

XIV

URDABURU JAUNA eta BURUNTZA JAUNA

BURUNTZA J.- emen utzi gaitu biok ollarrak bezela alkarri begira: moko z moko.

URDABURU J.- Kapoyak bezela uzten ez gaituten bitartean...

BURUNTZA J.- Kukurruku joko degula, ezta?...

URDABURU J.- Gandorrik gabe utzi arte bai!

(Par egiten dute)

BURUNTZA J.- Emaztearekin etorriko zifian noski?

URDABURU J.- Bai; or da goien... Zure andreak burua berotu diolata, etzegen etxean gelditzeko.

BURUNTZA J.- Nere andreak? Nereari zureak berotu emen dio burua.

URDABURU J.- Baaaa! Zureari nereak eta nereari zureak, eta emakumeen berocaldiak gure kaltean!

BURUNTZA J.- Bion andreak goyen dirala, irugarrena ere...

URDABURU J.- Leikoetxe'ren andrea ere laister jarriko dute, bai, geonak bezin arro. Orri ere gustatzen zayo festa eta maya!

BURUNTZA J.- Baita gureai ere!

URDABURU J.- Gureai igarritzen zayo.., jaten dutenak protxu egiten die... Baiña beste orri...? Geok baiño ao ohea du, eta, beti, medar eta lirain.

BURUNTZA J.- Ez gizontzeagatik, ez omen du etxean asko jaten. Berdura... fruta, eta aragi-erre pixca bat...

URDABURU J.- Berdura ta frutarekin asetzeko, saskika merkatuan erosi bearra izango da. Eta gaur ogiten duan diruarekin.., etzaio Leikoetxe jaunari ere merkea aterako andrea!

(Par egiten dute)

BURUNTZA J.- Tira, tira, Urdaburu jauna...kontuz ibilli bearra izango degu gaur.

URDABURU J.- Kontuz?... Guk aspaldian kuntua besterik ez degu, gizona!

BURUNTZA J.- Zureak berdetxoak izaten ditza ta....

URDABURU J.- Eta, zureak zere? gordiñak ala elduak?....

BURUNTZA J.- Esan nai nana da... gure emakumeak...

URDABURU J.- Gure emakumeak... beren artean gaituztenean, poz pozik!...Begiak eta belarriak itxiko dituzte, ta ez entzuna egiñaz, ez dira lotsatuko.

BURUNTZA J.- Gureak.., gureak ez.

URDABURU J.- Gureak.., gureak geok ere ez gaituzte lotsatzen beren berriketakin.. (Belarriak ukituz) Batetik sartu ta bestetik atera...Ez al-da ala?

BURUNTZA J.- (Irriparrez) Bai, bai...

XV

LENGOAK eta DIREKTOREA

BURUNTZA J.- (Direktore jauna agertu orduko) Emen degu direktore jauna, eta ixildu gaitezen. Migel jaunari eztio grazirik egingo gure berriketak. (Urdaburu jaunari) Besteke, esango aldio\$ orain urrengoa?... Zea... zure azkeneko ipui polita.

DIREKTOREA.- Etzaidazute neri ezer esan. Eta, gañera, ez det uste ipui berria izango danik.

URDABURU J.- Ze izan bear du! Baiña au betiko konta-katillu... (Maigañeko periodikua aruaz) Mundua oso nahastua dabil. (Irakurtzen asten da)

BURUNTZA J.- Mundua eta gerok!.. (Direktore jaunari) Nik eztiet erdia sinisten... Zer deritzaizu?

DIREKTOREA.- Zertaz edo zeri?

BURUNTZA J.- Alegia periodikuak orri askorekin ateratzen dirala.

- DIREKTOREA.- Orri gutxiorekin ateratzea nai al-zenuke?
 BURUNTZA J.- Bai. Egia xoilki esango ba'lute obe.
 URDABURA J.- (Periodikua utziaz) Orri asko, bai.. Nork ainbat saltzen artean mamia irentsi!.. Nik ez tet betik.
 DIREKTOREA.- Oar zaitezte fabrikari periodikua ematen diela...mamia.(Diruagati)
 BURUNTZA J.- Nola, nola!
 DIREKTOREA.- Fabricari ez al-diote periodikua erosten papera?
 BURUNTZA J.- Arrazoi dezu!
 URDABURA J.- Amaika berriketa egiten degu geon kaltean!
 BURUNTZA J.- Baiña merke erosten digute.
 URDABURU J.- Paperik lakarrena saltzearekin...
 DIREKTOREA.- Kalandra berriarekin labainduko degu.
 URDABURAU J.- Eta, arantzelaren zerga-kontu ori, asko io al-da?
 DIREKTOREA.- Ortara joanda Leikoetxe jauna.
 URDABURU J.- Zer! norbait labaintzera?
 DIREKTOREA.- Gizona,, gizona...

XVI

LENGOAK eta LEIKOETXE JAUNA

- DIREKTOREA.- Emen degu Leikoetxe jauna.
 LEIKOETXE -- (Bere nortasunean aundiki) Nere zai!.. (Kontsejeru jaunari eskua emanaz) Barkatu,..barkatu...
 URDABURU J.- Barkatu?.. Ba'dakizu, Leikoetxe jauna, zure zai ezkerala aspertzen!
 BURUNTZA J.- Ba'dakigu, Leikoetxe jauna, garrantziko entrebistan ziñala!
 LEIKOETXE -- Ala da! Eta entrebitearteko jaun-abogadu oekin esku leguna bear da. Ondo konpondu gera...Kostata, kostata!.. Baiña ez dizutet ortaz omen itzegin nai. Ez, ez; omen ez... Ixilpeko gauzak ixilperako obekak dira. Ez al-derizkiozute?... Zatozte nere dexpatxura. Eta, an, edari zerbait artuaz, itzegingo degu ortaz...
 DIREKTOREA.- Emen alkartuko gera ala kontsejuko aretoan?
 LEIKOETXE -- Emen bertan amar minutu barrun bean. Kontsejuko aretoa aundiegia da, ta an otz egingo du. Nere dexpatxuan, zerbait aurreratzeke, ezken billerako akta irakurri genezake... Ori aspergarri baita! Ez al-derizkiozute?....
 URDABURU J.- Arrazoi dezu!
 BURUNTZA J.- Bai, zerbait artuaz, obeto irentsiko degu.
 DIREKTOREA.- Ordun,akten liburua, aruntz eramango det izenpetzeko (firmatzeko).
 LEIKOETXE -- Liburua zertarako! Emen firmatuko degu gero liburuko akta. Orrek ez du garrantzirik. Orrietan jartzen degunak du balioa guretzat.
 DIREKTOREA.- Emen dauzkat... (Maigañetik artzen du lenago orriak barruan sartutako karpeta bat)
 LEIKOETXE -- Goazen ba... An adieraziko dizkizuei adierazi ezin ditezkenak.... (Despatxuetarako ate aurrean) Aurrera, aurrera!... (Kontsejeruak lenon, gero Leikoetxe eta ondoren Direktorea, barrura joaten dira)